

UHARTE

Uharteko Udalan sortuko diren beharretarako aldi baterako kontratazioetarako Zerbitzu Anitzeko-Lorezaintzako langileen zerrenda egiteko deialdia.

Espte. 1433/2021

Deialdiaren oinarriak

1. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez Zerbitzu Anitzeko-Lorezaintzako langileen zerrenda sortzea, Uharteko Udalaren beharren arabera aldi baterako kontratazioetarako.

Hautaketa-prozesu hori 2012/02/29ko Langileen Batzorde Paritarioak onartutako aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauetan (2012/04/20ko NAO 75. zk.) xedatutakoaren arabera egingo da, eta, zehazki, 8. artikuluan eta deialdi honen oinarrietan xedatutakoaren arabera.

1.2. Zerrendak interinitateak, laneko bajengatik aldi baterako ordezkapenak, oporrak eta udal zerbitzuak indartzeko behar puntualak betetzeko erabiliko dira.

1.3. Bete beharreko funtzioak bere mailari eta kategoriari dagozkionak izango dira.

1.4. Plazek D mailako ordainsariak izango dituzte, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei dagozkienak. Era berean, plantilla organikoak aurreikusten dituen soldata-osagarriak jasoko dituzte, bai eta hitzarmen kolektibo bidez lor daitezkeenak ere.

1.5. Lanaldia osokoa edo partzialekoa izan daiteke. Horiek guztiak zerbitzuaren beharretara egokituko dira, eta administrazio-organo eskudunek edozein unetan aldatu ahal izango dituzte.

2. Izangaien betekizunak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako hiritarra izatea, edo Europako Batasuneko bertze estatu batekoa, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen duen eremuko estatu batekoa; espainiarren eta Europako Batasuneko bertze estatuetakoa herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, Europako Batasuneko herritarren ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beheitikoak badira, edo goitikoak, haien kontura biziz gero.

b) Adinez nagusia izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu ez izana.

c) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) Gutxienez eskola-graduatu, 1. mailako lanbide-heziketa edo baliokidea izatea, edo titulua lortzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Kategoria horretan jarduteko aukera ematen duten ikasketa baliokideak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen legezko edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute, edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) B1 motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.

f) Funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea eta administrazio publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ez dute

diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik izan behar beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten duenik.

3. Prozedura.

Ekainaren 5eko 113/85 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Administrazio Publikoen Sarrerari buruzko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek kontratazioa ahalik eta arinen egitea ahalbidetu beharko dute.

Horretarako, dagokion Lan Eskaintza Publikoa aurkeztuko da Nafar-Lansare, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak gutun bidez edo egoki iritzitako bitartekorik egokienaren bidez jakinaraziko dizkie eskabideak aurkezteko epeak, proba horietan onartuak izateko baldintzak eta proba horiek garatzeko baldintza orokorrak.

4. Instantziak.

4.1. Parte hartzeko eskabideak Uharteko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira (San Juan plaza 1-1, 8:30-14:00 ordutegian, astelehenetik ostiralera) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz.

Eskabidea 39/2015 Legean aurreikusitako bitartekoren bat erabiliz aurkeztea erabakitzen bada, mezu elektronikoa bat bidali beharko da ayuntamiento@huarte.es helbidera, inguruabar hori adieraziz eta eskabideak aurkezteko epearen barruan. Eskaera posta-bulego batean aurkezten bada, gainera, gutun-azal irekian egingo da, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari, ziurtatu aurretik.

Epea 2021/09/10ean amaituko da, 14: 00etan.

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera izango dira. Eskabidean, hautagaiek adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabide-eredua Uharteko Udaleko Erregistro Orokorrean emango da, eta Internet bidez ere eskuratu ahal izango da, www.huarte.es.

Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

Eskaeran antzematen diren errakuntza materialak edo egitatezkoak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

4.2. Eskabidearekin batera, behar bezala beteta, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiri baliokidea.

b) Eskatutako titulazioaren fotokopia.

c) B1 gidabaimena.

d) Merezimenduak izanez gero, merezimenduak justifikatzeko agiriak.

e) Espedientea formalizatzegatik eta azterketa-eskubiderako 12,00 euroko tasa ordaindu izanaren egiaztagiria. Ordainketa ES59 3008 0087 74 1447560721 kontu zenbakian egin behar da. Tasa ordaintzen ez bada, izangaia kanpoan geratuko da.

Eskabidea Erregistro Orokorrean aurrez aurre aurkezten duten izangaiek une horretan ordaindu ahal izango dute tasa, eskudirutan.

Salbuetsita egongo dira izena emateko unean langabezian daudela egiaztatzen dutenak.

5.- Behin behineko eta behin betiko zerrendak.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda Uharteko udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren webgunean (www.huarte.es) argitaratuko da.

Egun horretatik aurrera, eta hurrengo bi egun naturalen barruan, baztertutako izangaiek erreklamazioak egin ahal izango dituzte edo beren eskabideko akatsak zuzendu, Udaleko edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Baztertuak izan ez badira, behin betiko zerrenda argitaratuko da zuzenean, hautaketa-probak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, alkatetzaren ebazpena emango da, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendak onartzeko, eta Uharteko Udaleko iragarki-oholean eta www.huarte.es web-orrian argitaratuko dira, aurreikusitako hautaketa-proba egiteko datarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendetan egoteak ez du esan nahi interesdunei deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Hautagaiek kontratatzeke deia egiten zaienean aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela garaiz edo behar bezala eskatutako baldintzaren bat, interesdunek bertan behera utziko dituzte deialdi honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

6. Kalifikatzeko epaimahaia.

6.1. Hauexek izanen dira kalifikazio epaimahaiko kideak:

-Burua: Edorta Beltzunegi López jauna, Uharteko Udaleko jarduneko alkatea edo eskuordetzen duena.

-Ordezkoa: Izendatzen duen pertsona.

-Kidea: Txemari Zurbano jauna, Uharteko Udaleko Zerbitzu Anitzetako burua edo eskuordetzen duena.

-Ordezkoa: Izendatzen duen pertsona.

- Kidea: Juan Andrés Viedma Feligreras jauna, Uharteko Udaleko Zerbitzu Anitzak-Lorazaintzako burua edo eskuordetzen duena.

-Ordezkoa: Izendatzen duen pertsona.

- Kidea: Xabier Diaz Piñar jauna, Langileen ordezkari bat, Langileen Batzordeak proposatuta.

-Ordezkoa: Izendatzen duen pertsona.

- Kide-idazkaria: Iñigo Anaut Peña jauna, Uharteko Udaleko Giza Baliabideetako kudeatzailea.

-Ordezkoa: Izendatzen duen pertsona.

Epaimahaia hautaketa-proben aurretik eratu beharko da.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien legezko ordezkoek bertan egon beharko dute.

6.3. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak audenean.

Halaber, hautagaiek epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte, aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izango ditu proba guztietarako edo batzuetarako.

Aholkulari horiek epaimahaiarekin lankidetzan arituko dira, eta beren espezialitate teknikoak gauzatzera mugatuko dira.

7. Hautaketa espedientearen garapena:

Oposizioaren garapena. Oposizioak bi proba izango ditu:

7.1. Proba teorikoa: Idatziz erantzutea zerbitzu anitzak-lorezaintzari eta garatu beharreko funtzioekin lotutako beste gai batzuei buruzko zenbait galderari.

Zati honi 35 puntu emango zaizkio gehienez. Proba baloratzeko irizpidea eta erantzun alternatiboa duten galderetako akatsen penalizazioa proba hasi baino lehen zehaztuko dira. Proba gaingidutako dute proban ezarritako gehieneko puntuazioaren 100eko 50 (17,5 puntu) gutxienez lortzen duten pertsonak.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo egoitza-txartela eta boligrafoa eraman beharko dituzte. Deialdira agertzen ez diren izangaiaak baztertuta geratuko dira.

7.2. Proba praktikoa: Egin beharreko eginkizunekin lotutako proba praktikoa bat edo batzuk egitea izango da.

Probak bat baino gehiago badira, bata bestearen segidan egingo dira.

Gehienezko puntuazioa 60 puntukoa da. Probaren balorazio-irizpidea proba hasi baino lehen zehaztuko da. Proba praktikoa ezarritako gehieneko puntuazioaren ehuneko 50 (30 puntu) gutxienez lortzen duten pertsonak gaingidutako dute proba.

7.3. Meritoak. Hizkuntza hauen ezagutza ofiziala (gehienez: 5 puntu):

1. Euskara: Gehienezko puntuazioa: 5 puntu.

a. A1 maila: puntu 1

b. A2 maila: 2 puntu

c. B1 maila: 3 puntu

d. B2 maila: 4 puntu

e. C1 maila: 5 puntu

7.4. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean bertan zehaztuko dira probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

Proba bakoitzerako deialdia deialdi bakar baten bidez egingo da. Izangaiek nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute, eta, hala eskatzen zaienean, erakutsi egin beharko dute, kanporatze- eta ezabatze-zigorren bidez, salbu eta egintza berean behar bezala egiaztatzen badute zuzenbidean onargarria den edozein bide erabiliz. Notak kopiaatzea eta frogetako beste iruzur batzuk berehala baztertzeko arrazoiak izango dira, jarduketara penalei kalterik egin gabe, hala badagokio.

Halaber, oposiziotik kanpo geratuko dira agertzen ez diren izangaia.

8. Gaingidutakoen zerrenda.

Probak egin ondoren, zerrenda bat egingo da izangaiekin, puntuazio-ordenaren arabera. Zerrenda hori Internet bidez ere kontsultatu ahal izango da, www.huarte.es.

Berdinketarik gertatuz gero, adinez nagusiena denaren alde egingo da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

9. Kontratazio zerrenden kudeaketa.

Kontratazio-zerrendak hiru urteko indarraldia izango du, epe laburragoan amaitzen ez bada edo beste deialdi bat egiten ez bada.

10. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berrezartzeko errekurtsua egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Kalifikazio epaimahaiaren erabakien kontra, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzenduan, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

I ERANSKINA

ESKABIDEA

Uharteko Udala.

..... jaun/andrea, adinez nagusia,
..... Nortasun Agiri Nazionala duena (edo baliokidea den identitate
karta) etaekoaren(e)an jaioa
.....-n (.....), egun helbide honetan bizi dena:
.....-n (.....),
kalea eta..... posta kodea. Telefonoa, telefono
mugikorra....., e-posta

Azaltzen du:

Uharteko Udaleko Zerbitzu Anitzeko-Lorezaintzako langileen zerrenda egiteko deialdian onartua izateko eskatzen duela.

Lanpostuan jarduteko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplina-espeditate bidez bereizi edozein administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez dagoela desgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunari dagokionez.

Epaimahaiari baimena ematen diola bere telefono mugikorraren eta posta elektronikoaren zenbakietara sartzeko, mezu bidez jakin dezan non, noiz eta zer ordutan egingo diren hautaprobak.

Azaldutakoagatik,

Eskaera hau onartzea eta aipatutako deialdian parte hartzea eskatzen du.

Uharte, 20...(e)koarenn

(Sinadura)